

TABAKALERA



# HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK II: KOMUNITATE LOGIKA

Ula Iruretagoiena Busturia

9 788460 826668



**TABAKALERA**



**HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK II:  
KOMUNITE-LOGIKA**

Tamaina handiko kultura garaikidearen zentro bat zabaltzeak hainbat erronka eta kontraesani aurre egitea dakar berekin, eta hiria eta politika egiteko orduan hartu beharreko papera zalantzan jartzea, erantzunkizunetik abiatuta.

Eraikin industrial bat jarduera berri batera egokitzeko birmoldatzen denean, ezinbestekoa da hondarearekin eta prozesuaren monumentalizazioarekin zerikusia duten gaiei arreta jartzea, eta espazio horien balioaz eta inbertsio publikoaz hausnartzea. Inguruko eremua hobetzeak, plazak eta eremu publiko zabalak sortuz, auzoei zuzenean eragiten dien hobekuntza urbanistikoa dakar. Baina bestalde, gisa honetako prozesuak beti dute ziurgabetasun puntu bat, eraldaketak auzoan, edota zonaldean, nola eragingo duen zalantza; hiriaren erdigunean kokatzeak edo ospetsu egiteak hiriaren logiketan eraldaketak ekartzen baititu, eta horrek ekonomian ere eragina izan ohi du.

Kulturaren eremutik, dena den, rol politiko eta kritikoa hartzea dagokigu, gizarte garapena bultzatzeko, ekimenen labotegi eta garaikidetasunaren inguruan gogoeta egiten duen gunea izatea. Hiria eta Bestelako politikak ekimenak geure buruaz hausnartzeko eta gogoetara eta autokritikara bideratutako lekua izateko eginkizunari heltzeko balio digu. Hiria egitea geure egitekoa ere bada; elkarrekin, ekintzaren bitartez, hiriaren barruko hiri bat eraikitzea.

**ANE RODRIGUEZ ARMENDARIZ**

Tabakalerako kultura zuzendaria

# HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK II: KOMUNITATE LOGIKA

Ula Iruretagoiena Busturia

- 7 | KOMUNITATE LOGIKA KONTROLAREN LOGIKAREN AURREAN
- 15 | ARKITEKTOAREN ERANTZUNKIZUNA ETA KONPROMISO POLITIKOA
- 18 | ABANGOARDIEN BEHARRA
- 21 | KOMUNA DENA: NI, GU, HAIEK
- 25 | HIRIGINTZA DES-ERATZAILEA

2014ko urriaren 16,17 eta 18an, "Hiria eta Bestelako Politikak" jardunaldiak ospatu ziren 2013an abiatutako gogoeta diskurtsiboari jarraipena emanez<sup>1</sup>. Hiriri buruzko hizketaldi berriok, dimentsio eta eskumen politikoari dagokionenan ere, hiria, komunitatetik eta komunitateak berak egiteko formen edo praktiken bilaketa zuten ardatz, herritarrek partekatze eta esku hartzeko duten gaitasuna onartuta, horrela gaur egun nagusi diren garapen ereduaren aurrean jardunbide alternatiboak urratzeko aukerak iradoki asmoz. Ez alferrik, esku hartzeko "bestelako" modu horien izatekoa, hiria, biztanle bezala dagokigun eta sozialki jardutera bultzatzen gaituen leku komun bezala aitortzea da, horrek, gaur egungo, edo, balizko hiri gertakizun ororen izaera komunala balioan jarri eta nabarmentzen duelarik. Horrezaz gain, "komuna dena" birpentsatzea, Tabakalerako kultura programaren barruan 2014an antolatu ziren zenbait jarduera ardaztu zituen pentsamendu ildo kritiko baten aterki kontzeptuala ere izan zen. Testuinguru horretan, hiriri buruzko eztabaidak, bestelako foro eta ikusmolde filosofiko, artistiko eta antropologikoetatik adierazitako teoria eta ikuspegiak harilkatzeko balio izan zuen, guztiak bat egiten duten lekutzat hartuz hiria.

Bigarren jardunaldi hauetan hiru gonbidatu izan genituen: Carmelo, Manu eta Itziar, arkitektura ogibide izanik, komuna denaren "praktikazaile" izateagatik, eta, inguruneak eraikitze orduan elkarlana oinarri duten kideez osaturiko komunitateetatik abiatzea konpromiso argitzat ukaiteagatik nabarmentzen direnak.

CARMELO RODRÍGUEZ CEDILLOk, garatzen ari den "Antropología del futuro" bere doktore tesiaren zenbait ondorio azaldu zituen; joan zen mendeko 50eko eta 70eko hamarkaden artean eman ziren hirien etorkizunaren proiektioei buruzko arkitektura proposamenak jasotzean

1 Jardunaldiak Ibon Salaberria San Vicentek eta Ula Iruretagoiena Busturiak antolatu zituzten.

datzan lana hain zuzen. Informazio bilketaren prozesuan bere blogeko leiho birtualean elkarlanari esker jasotako ekarpenen garrantzia aitortzen du, bere tesi proposamena osatzen duten erreferentziak zabaltzen eta aberasten lagundu izan duen elkarlana, eta logika horretan aritzearen onurak erakusten dituena aldi berean. Profesionalki Carmelo PKMN kolektiboko kidea da; bertan prozesu eta diseinu parte-hartzaileen dinamizazioan lan egiten du, arkitektoaren eguneroko praktika, komuna denaren eraikuntza bultzatzera bideratuz.

MANU PASCUAL GARCÍA Zuloark kolektiboko partaidea da, bai arkitektura proiektu profesionalak eta talde lana bera ere irizpide parte-hartzaileak premisatzen hartuta garatzen dituen enpresa. Zuloark hierarkia malguen eta rol trukagarrien bidez egituratzen da (ez dago nagusi bat, guztiak dira noizbait buruzagi egin beharreko lanaren arabera); horrek ez du ordea kide bakoitzaren eragin esparrua egokitzen zaion lanera murrizten, ezpada zabaltzen eta eraginkorrago egiten duela. Kolektiboaren sorreratik iraun duten eta garatu diren elkarlaneko antolaketa eta printzipioak, eta diharduten logika komunitarioaren praxia dira elkarlan horrek lor ditzakeen emaitza onen frogarik agerikoenak. Zuloarkek Madrileko “Campo de la Cebada” plazaren kudeaketa parte-hartzen du eta jardunaldietan egin zen kontaketatik komunitate logikak espazio publikoan erabiltzeak dakartzan paradigma aldaketak estrapolatu ahal izan ziren.

ITZIAR GONZÁLEZ VIRÓSek “hiriaren terapeutatza” du bere burua, “hiria organismoa” osatzen duen multzoaren osasun mentalarekin buru-belarri engeiatuta, haren bizi-funtzionamenduan ematen diren asaldurak sendatuz. Hiri-espazioan ematen diren gatazkak konpondu bidean, parte-hartze prozesuetan bitartekaritza eta kudeaketa lanean bere ibilbide luzean pilotutako jakintza esperientzialaren eta eskarmentu politikoaren ernatzaile moduan darabil bere diskurtso poetiko eta politikoa. Errealitateaz duen ikusmoldeak argi erakusten ditu egitura politikoetan gordetzen diren indarrak, eta konfiantzazko eta baikortasuneko izpiritu batez blaitzen du bere entzuleria irizpide kolektiboetan eraikitako etorkizun bati begira. Itziar, herritarren parlamentuaren bidez egingo litzatekeen botere egituren “re-volta” (“erre-bolta”) egitearen aldekoa da, bere hitzaldiaren mezuaren muina osatu zuen ideia izan zena hain justu (katalanezko parla-ment ciutadà esapideak, herritarren adimenak hitz egiten duenaren esanahiarekin jolasten du).

Hiriaren eta politikaren inguruko topaketa saioak hiri garaikidea despolitizatuta dagoenaren baieztapenarekin hasi ziren. Hiriaren eraketa finkatzen duten kategoriek –espazio publikoarekiko erabakiak hartzea ez da ez xaloa ez neutrala, ikusten den eta ez den horrek irakurketa politiko inplizituak ditu berekin– “komuna denaren kudeaketaren” eremua kanpoan uzten dute, batetik arkitekturaren eta estatuaren arteko botere harremanak, eta bestetik bereziki hiri-ingurunearen diseinuan adierazten den biziaren merkantilizazioak determinatzen dituelako.

Biziari dagokion guztia kapitalaren produkzioaren makinerian sartu ahal izateko salerosketa gai bihurtzeko eskrupulurik gabeko joera berresten da, eta, horretan, hiria, “gauza salgarri” bihurturik, ez da salbuespena izan. Hiriaren merkatuarekiko mendekotze hau tematizatze prozesuen (hirira doan turistaren bisitak *Disney* parke bat bisitatzearen antza hartzen du) eta monumentalizatzearen bidez eman izan da (ondarea bazka fotografiko den memoria historiko bihurtuta) batez ere; prozesuon ondorioz, berea duen konplexutasunaz erantzitako identitate baten pean dagerkigu sinpletuta hiria, hutsaldua, erabilia eta ohiko marketing agentziak kalkulatu. Joera hori aski frogatua eta egiaztatua gelditu zen “Hiria eta Bestelako Politikak” lehen jardunaldietan<sup>2</sup>.

## KOMUNITATE LOGIKA KONTROLAREN LOGIKAREN AURREAN

*“Herria zapaltzen duen tiranoaren logika norbere apetazko interesen pean eraikitzen da. Kontrara, herriaren logikak adostasunaren eta itunaren ideiekin dihardu. Logikoa ez da apetazkoa”.*

Itziar González Virós

<sup>2</sup> 2013ko jardunaldien laburpena ondorengo bilduman jaso zen: SALABERRIA, Ibon: *Ciudad entre Otras Políticas*. (Tabakalera: Donostia, 2014).



*El presentiment* 38. zkia., 2014.

Espai en Blanc-en proposamena Bartzelonako masa turismoa dela eta pentsamendua asaldatzeko.

Merkantilizazio horren beste deriba zital bat hiriak bata bestearekin borrokan jartzearen ideia da (dixosozko lehiakortasunaren izenean), komunitate logikak saihesten dituen jarrera. Hori lurraldearen gaineko esku-hartze zatikatua da, bere osagaiak, elkarreragin, elkar osatu eta elkar laguntzen duteneko organismo itxurako lurralde funtzionamendua ekiditen duena beste behin. Kapitalak bereizi, murriztu eta sinpletu egiten du. Komuna denak berriz, konplexutu, batu, areagotu eta barneratu egiten du. Gure lurraldearen kudeaketa eta antolaketa publikoaren lanari heltzeko "lurralde zatiketa" esapidea erabiltzea bera (lurralde unitateak erabili beharrean) adierazgarria da, eta gure hiriak beren egitura funtzionaltik eta naturaletik deserroturiko zati autonomo bezala ulertzeko moduaren argigarri, bulego-mahai batetik jarrera kontrolatzaile batez ezarritako mugatzeak direlako ezinbestean.

Lurraldearen konkista betidanik izan da dominazio eta indarkeria ekintza; gaur "indarkeria subjektibo"<sup>3</sup> bihurtua, ez da gorputz zaurituetan adierazten den motakoa, bai ordea giza biziari sotilkiago erasotzen diona. Hiri eraldaketa handien plangintzetan (erregenerazioaren lelopean) esku-hartze haussmaniarretatik gentrifikatze operazioetara igaro gara; goikoek ezarritako ordena berrezartzeko helburua duten "indarkeriazko garbiketa estrategiak" biak ala biak. Arkitekturak indarkeria subjektibo hori bultzatu izan du gizarte ehundura eta bizia zuten eremuak eraitsiz, aurretik zegoena ezabatu eta gauza preziatu batez ordeztzeko eta irudi globalizatzaile bezala gailentzeko, hala, hurbileko testuinguruarekin harreman baldintza berriak sortzeko bere ezintasuna erakutsiz<sup>4</sup>. Horrela, arkitektura, gauzatzen den lekuan, bere burua autoirudikatzen duen, eta naturagabetu eta kolonizatu egiten duen zerbait bihurtzen da. Hori izan da arkitekturaren azken aroaren historia, bere zereginean pribilegiatuen eta baztertuen arteko harresi ikusezinak eta mugak eraiki dituen, botereak hiriari ezartzen dion aginte eta ideologia makineriaren atal bezala irizpide ekonomikoak jarraituz.

<sup>3</sup> Slavoj Žižek (j. 1949) filosofo eta psikoanalista esloveniarraren ikuspegia indarkeria motez, objektiboa eta subjektiboa, boterearen egiturei dagokienez. ŽIŽEK, Slavoj: *Sobre la violencia: seis reflexiones marginales*. (Paidós Ibérica, Madrid: 2009). Jatorrizkoa: *Violence: Six Sideways Reflections*. (Picador: Nueva York, 2008).

<sup>4</sup> Miguel Mesa de Castelloren "Víctimas de un mapa: Arquitectura y Resistencia en el Tiempo de la Cultura Flexible" doktore tesiak gure hiri eta lurraldeetan indarkeria erabiltzeko modu ezberdinak bildu eta haiei buruz dihardu. "Urbizidioa" eta hirigintza militarra bezalako ideiek egungo gerren guduzelaia hirietan kokatzen dute. Hiri azpiegiturak (metroa, ur eta gas hornidurak...) dira gaur eraso terroristen helburu eta estrategia militarrek hirigune urbanoetan entseatzeko dira kontrol eta zaintza sistematan.

Irudi bisualak, erakargarriak eta distiratsuak darabiltzan arkitektura ingurune kontrolatuen eta estatikoen eraikuntzarekin lotzen da. Irudi estatikoa sortzeak arkitekturaren ondorio den irudia eta horrekin lotura duen guztia (erabilera eta esanahia) kontrolpean izatea esan nahi du, biziak berezkoa duen dinamikotasuna eta eraldagarritasuna ezabatzea. Ikusmenaren hegemonia begi kontrolatzailean gauzatzen da, eta mendebaldeko arkitekturaren tradizioak arerio bezala hartu eta gainditzea helburu izan duen denboraren joanaren eta ziurgabetasunaren aurkako borroka etengabea sortzen du aldi berean<sup>5</sup>. Denboraren ezengonkortasunak arkitektura birformulatu, adierazi eta aldatzen du, irudi iragankor eta burutu gabeko bihurtzen du, eta hori arkitekturan oraindik irauten duen erresistentzia da.

*“Kolektiboki eraikitako espazioetan indibidualki sortutakoetan inoiz gertatuko ez liratekeen ustegabeko egoerak ematen dira”.*

Manu Pascual García

Irudien arkitekturan gauzatzen den bisuala denarekiko loturak<sup>6</sup> kontsumo errazera bultzatzen duen hustuketa ideologikoa dakar, objektu gogoangarria sortzea bilatuz eta arkitekturak berekin dituen gainontzeko aspektuak bigarren planoan utziz. Horrek justifikatuko luke testuinguru sozial, kultural eta politikoaren aurrean erakusten duen eraldaketarako ezintasuna. Arkitektoaren engaiamendu politikoa ahula izan da ia beti, aztertzen den problematikari modu sinplifikatu eta zeharkakoan ustezko irtenbidea emateko, materialitateaz, formaz eta teknikaz gehiago kezkatuta. Ez da halabeharra arkitektoek sortu izan duten pentsamendu filosofikoa formalismoetan eta diseinu geometrikoetan gauzatu izana, beren botere diskurtsiboa eta eraldatzailea des-eratzuz.

Gure ingurunea kontrolatu behar hori berdin igarotzen da bai eraikuntza ondarea nahiz natura ingurunea babesteko ekintzetara. Babes lanari ekitean

<sup>5</sup> Jeremy Tillen tesiak, arkitektura, dena izatera iristeko bidean faktore askoren eraginaren baitan dagoela defendatzen du, eta hori ukatzea inora ez daraman xedea dela. Denboraren aurkako borroka etengabea izan da arkitekturaren historian, firmitas kontsigna vitrubiarrak kutsatuta, hori betikotuz, arkitektura ekintza jarrera harroetan itxitako harri mugikaitzetan bihurtzeko arkitektoak inposatutako egiak eraikiz. TILL, Jeremy: *Architecture Depends*. (MIT Press: Londres, 2013).

<sup>6</sup> Okularzentrismoa edo ikusmenaren lehentasuna gure mendea bereizten duen fenomeno bat da Juhani Pallasmaaren hitzetan; botere eta kontrol nahia duen zentzumena, nartzisismorako joera erraztuz. “Gaur egungo arkitekturaren gaisotasunaren ertz asko gizarte osoaren eta arkitektura beraren tendentzia okularzentrismatik argi ditzake. Arkitekturaren eta hiri garaikidearen gizagabetasuna gorputzaren eta zentzumenen neglijentziaren ondorio bezala uler daiteke”. PALLASMAA, Juhani: *Los ojos de la piel. La arquitectura y los sentidos*. (Gustavo Gili: Barcelona, 2006). Jatorrizkoa: *The Eyes of the Skin. Architecture and the Senses*. (John Wiley: New York, 2005).

iraganaren irudi fosildua bilatzen da, mendebaldar zibilizazioan errotuta eta onartuta dagoen jarrera izaki, bereziki Euskal Herrian. Ondare naturala edo eraikia gordetzea “lehenengo egoera” bat aldaketarik gabe mantentzean bihurtzen da, bilakaerarik ez duen iraganaren irudia lortzearen ideiepean. “Benetazkoa den” denbora historiko jakin hura hautatzea, gaien “aditutzat” joa den norbaitek iragana osatzen duten hainbat denboretatik berreskuragarri deritzon bat hautatzeak legitimatzen du. Ez da soilik salagarria benetakotasunez jantzitako garai bat erreskatatu nahi izatea, ezpada paisaia bat edo eraikin bat zigortzea bizigabetuz eta objektu pasibo bihurtuz. Prozesu hori, gainera, edukiz eta zentzuz hornitzen zuen testuingurua erauzitako iragan bat berreskuratzeko jarrera batekin batera joan ohi da, objektu estetiko huts bat sortuz. Prozesu hori eraikinen, paisaien eta ohituren *folklorizazio* bezala izenda daiteke. Iraganak hainbat zibilizazioen jakintza egitate fisiko eta materiagabetan gauzatzen du, egiteko modu baten ondorio bezala, eta itxuraren eta estetikaren bidez imitatutako irudi bat erreproduzitzeak egitea bera hutsaltzera darama, horrek memoria kolektiboa gordetzen laguntzen duela sinetsita. Babeste kontserbazionista hori errealitatea kontrolatu behar horren beste ebidentzia bat da, ikusmenaren nagusitasuna eta gainetik ezartzen zaigun postura baten aldebakartasuna.

*“Arkitektura, hirigintzaren etorkizunak baino, bere buruaren etorkizunak kezkatu izan du, errealitate sozialetik bereizita dagoen arkitekturaren izaera autonomoa konfiguratzeko”.*

Carmelo Rodríguez Cedillo

Hiriari buruzko berri onek, hedabideek diotenez, gure hirietako turista kopurua “zorionez” igo egin dela aditzera ematen dute<sup>7</sup>. Kapitalaren metaketaren garapenari lotutako bizi-kalitatea gaitz endemiko bezala agertzen da hiria egiteko garaian, helburuak bakuntzen dituelako, eta garapen nahia soilik BPG tasa handitzera edota turista kopurua hiriaren arrakasta mailaren irizpide izatera bideratzen dituelako, horiek helburu desiragarri bakar gisa adierazita gainera. Espazio publikoa interes pribatuen menpe erori da kapitala guztion aberastasuna den gezurrezko kontsignapean. Ildo honetan, hirien (eta lurraldeen) fabrikatutako irudietan

<sup>7</sup> Turismoaren industria hiri askoren izaera aldatzen ari den fenomeno globala da; Elizabeth Becker-ek (j. 1947) industria horrek ezkututzen dituen zehar kalteak eta benetazko ekonomia fluxua agerian ipintzen ditu. BECKER, Elisabeth: *Overbooked: The Exploding Business of Travel and Tourism*. (Simon & Schuster: New York, 2013).

herritarraren karikatura egiten da (ezabatzen ez denean) eta arrunta denaren hiri esperientzia baliogabetzen da interes (ekonomiko) faltagatik. Arreta fokua ezohikora igarotzen da: museoak, munumentuak. Egunerokoa atzera botatzen da argazkian ateratzeko erakargarritasun nahikorik ez izateagatik: errealtatearen baitakoa da. Turista edo kongresu-gizona bihurtzen da hirietan gertatu diren eraldaketen hartzaile nagusi, kanpotik antzemangarri den errealtate bat eraikitzeke egunerokoan gertatzen denaren azpi-produktu bezala.

*“Hans Hollein da ziurrenik XX. mendearen bigarren erdian eragin handiena izan duen arkitektoa, bere proposamenak irekiak direlako eta gizabanakoari iruditeria propio bat eraikitzeke aukera ematen diolako”.*

Carmelo Rodríguez Cedillo

Hiria eraldatzen duen turismoaren espektakuluak publizitatearen irudikapen imaginarioa gainditu eta eguneroko bizitza nahasten duela da arazoa, salgarria eta desiragarria den irudi bat sortzean espazio publikoen erabilera patroiak aldatzen dituela hiriaren ikusgarritze prozesu baten bidez, kanpokoari harrera egin eta hura olgatzeko, askotan bertako benetako pertsonaia nagusia, hau da, egunerokoan hiria bizi (eta sufritzen) duena kanpora bultzatuz. Kontua ez da kalte guztiak turistari egozte, bai ordea bezero (turista)<sup>8</sup> bihurtutako bidaiariarentzat pentsatutako hiriak sorraraz dezakeen rolen eta helburuen iraultzea salatzea. Eta, barrukoek zein kanpokoek goza lezaketen hiri esperientzia batez pentsatuko bagenu? Bizi kalitateari buruzko eztabaida kapitalaren metaketak eta lanak baldintzatzen eta agortzen dute, hirian bizitzeak esan nahi duenaren benetazko sinplifikazioa, izanik hau batez ere pertsonen harreman eta garapenarekin zerikusia duen kontua, kanpokoaren eta barrukoaren arteko bereizketarik gabe kapitalaren eta norgehiagokaren logikak gainditze aldera bideratzekoa.

Hirietaz hitz egitean, politizazio prozesuek eta egiturek eragiten duten lekuetaz, eguneroko bizitza gertatzen den lekuetaz ari garela argitzea komeni da. “Hiria” hitza hautatu izanak ez du hiriko-landako dikotomiaz eztabaida sortu nahi, ezta hiria-herria edo beste era bateko bizilekuen artekoa ere. Hiriak behar du eta zuzenki eragiten du landa gunean,

8 Manuel Delgadoren (j. 1956) blogean turistaren apologia egiten duen sarrera: <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com.es/2015/03/salvemos-nuestros-turistas.html>


banaezinak dira, hortaz, eztabaida termino antagonikoetan mahairatzea desegokia da. Hiriak lurraldearen gaineko politiken ondorio den bizikidetzako espazio fisikoa izendatzen du, guztiok partekatzen dugun, dagokigun eta guztioi eragiten digun harreman eta bizikidetzaren esparrua barne hartuz. Hirian guztion artean zerbait sortzeko norbanakoen interesak eta borondate kolektiboak egiten dute bat; ondorioz, hiria aldatzeak gizarte ordena ere aldatzea badakar. Hiria bere alderdi materiala baino askoz gehiago da, konotazio errepresentatibo eta sinboliko bortzitzak dituen amalgama da bizitza gertatzen deneko leku komuna eratzen duen heinean. Gizarte antolaketa batek eta eraketa tekniko eta fisiko batek aldi berean baldintzatzen duen lekua, eta boterearen aparatu ideologikotzat hartzen den “hegemoniak” forma zehatzena hartzen dueneko. Guzti horrek, hiria, hausnarketarako, antagonismorako eta komunitate ekintzarako lurralde emankor bihurtzen du.

*“Komunitate praktiketan bizitza guztian funtzionatu izan duten sen onaren logikak berreskuratzen dira”.*

Manu Pascual García

Alabaina, hiri garaikidea espazio indargabetu eta egonkortua da, ez bakarrik segurtasun eta kontrol arau eta gailuen pean egoteagatik, ezpada hiri diseinuak berak espazioa nola erabili, nola edo non eseri edota ibili gaitzkeen arautzen duelako. Horrek guztiak bere “gizalegezko” erabilera baterantz bultzatzen du, non aurretiaz onartu, ezarri edo aurreikusi ez den jarrera oro ezeztatua gelditzen den. Hiritarraren ahots kritikoa isildua izan da hiri espazio homogeneizatu honetan, eta Estatuak ezarritako ordenaren aurka doan herritarraren desaktibazio hori, komunitate logiken arabera espazio publikoetan burututako ekintzen bidez heltzea proposatzen den problematiketako bat da. Guztien arteko eta partekatutako lan bezala hartu eta egiteak interes pribatuen mesedetako den jarrera indibidualista desegiten baitu, eta ekintzarako motor gisa pertsona berpiztearren, jarduera mekanismoen desplazamendu bat behartzen ezinbestean. Komunitate logiketan aritzeak hiria produktu bezala pentsatzen deneko erroak ezbaian jartzen ditu, kapitalari tokia kenduz eta norbanakoa-kolektibitatean ekintzaren erdigunean ipiniz.





Women's School of Planning and Architecture (WSPA) kolektibo feminista batek bultzatutako hezkuntza programa pilotu bat izan zen (1974-1984). 1975. Irudiaren eskubideak: The Sophia Smith Collection

# ARKITEKTOAREN ERANTZUNKIZUNA ETA KONPROMISO POLITIKOA

*“Arkitektoak Supermanen paper heroikoa alde batera utzi beharra dauka, dena gustagarriagoa egiten duen Indiana Jones apalagoaren antza hartzeko”.*

Manu Pascual García

Arkitektoaren figura gizartean leku bila ari da egun. Hiri despolitizatuak boterearen aliatu, zerbitzari eta hiriaren eraldaketaren gauzatzaile den arkitektoa bultzatu du<sup>9</sup>, eta kapitalaren makineriaren astinaldia jasan ostean mende honetako lehen hamarkadako eraikuntza orgiaren jostailu hautsia izatera igaro da. Arkitektoaren rola definitzeko dago, ez soilik lan eskasiagatik edo bere lege eskumenak zehazteko beharragatik, ezpada bere burua konpromiso sozial handiagoa duen figura politiko gisa berreraikitzeke premiazko beharrizaganatik. Komunitate logiken arabera aritzeak birdefinizio “profesional” horretan lagun dezaketen gida-lerroak ikusarazteko aukera ematen du. Botere egiturak komunitate logiken arabera berreraikitzeke lanak arkitektoen kolektiboaren parte hartzea eskatzen du, behin politizatuak eta egiteko modu berri hori eremu fisikora eramateko gaituak.

Helburu komun bat erdiesteko taldean lan egiteak pertsonalismoetatik urruntzen den jabetza intelektuala bultzatzen du. Manuren hitzetan, oso deigarria da pelikula baten kredituetan agertzen den parte-hartzaile kopuruaren eta arkitektura obra baten gauzatzean agertzen denaren arteko aldea. Bietan da handia partaide kopurua, haatik, zinearen kasuan bakoitzaren ekarpen espezifikoa aitortzen da zerrenda luzean; arkitekturaren kasuan aldiz, guztia arkitekto zuzendariaren izenpean gelditzen da, gainontzeko parte-hartzaileak ezkutatuak. Egiletza partekatua

9 Manfredo Tafuriren (1935-1994) ikerketak, agerian jarri zuen Mugimendu Modernoaren baitako arkitektoen eta kapitalismo fordistaren arteko elkarlana espazio egongortu, garbi eta ordenatuak sortzeko garaian. Horrekin, arkitektura pentsamendu hegemonikoaren ideologiarekin berdintzen du. TAFURI, Manfredo: *Progetto e utopia: architettura e sviluppo capitalistico*. (GLF Editori Laterza: Bari, 2007).

onartzeak arkitekturari aldaketa kualitatiboa ekarriko lioke, ez bakarrik bere izenpean eraikuntza obraren konplexutasun guztia bere gain hartzen duen arkitektoaren figura desmitifikatzearen, ezpada edozein eraikuntzatan parte hartu duten guztien ekarpena aitortzeko; horrek arkitekturaren dimentsio artistiko eta sortzailea berrestez gain, kudeaketa lanek, garapen teknikoak, aurrekontu ekonomikoak, gizarteratzeak, estrategia senak eta politikak orokorrean duten garrantzia eta lekua ere berretsiko luke arkitekturaren emaitzen parte diren eta horiei eragiten dioten aspektu bezala. Egiletza partekatua aitortza eskaerak arkitektura jarduera kolektibo moduan ikustea du xede, horrela bere balizko balorazioen gaineko ikuspegia zabaltzeko, estetikaren gorentasunari lekua kenduz eta ardura politikoa barne hartuz.

Baina komunitate logiken arabera lan egitea ez da eraldatzailea arkitektura jardueraren barne garapenari dagokionez bakarrik. Halaber, gizartean arkitektoaren lana izan daitekeenari buruzko ikuspegi alternatiboa txertatzeko ere baliotsua da. Hemen arkitektoari egotz dakioken funtzio posible bezala Itziarrek adierazi zuen "trazabilitatearen" nozioa hartzen dugu ahotan. Arkitektoaren funtzioa oraingo eta iraganeko egiturak ikusaraztean gauzatuko litzateke, eta horien gainean, ehartetuz, gehituz eta kenduz eragitean; baina betiere gu ez den beste edonor ere lantzen joan daitekeen zerbait eraikiz, espazioan eta denboran jarraipena izango duen eraikitze kolektiboaren kate aktiboan beste atal bat balitz moduan continuum birziklagarri eta ebolutibo bat eraikiz. Ildo honetan, Manu, arkitektoa ehiza-txakurra balitza irudikatzearen alde azaldu zen, "Lost raiders" izenburutzat zuen bere hitzaldiak ezkututzen zuen ideia zena hain zuzen. Arkitektura jarduerari erants dakioken begirada periferikoak, ezarrita dagoenetik kanpo gertatzen ari den hura berreskuratzeko aukera emango luke ("bestea" edota "gainerakoa" bezala hartuta), arrakastatsutzat edo produktibotzat jotzen denaren oniritzirik ez duenari eta hegemonikoa denetik ateratzen denari arreta jarritz. Arkitekto-aztarnariak gobernantza egitura horien gaitasuna balioan jarri eta aitortzen du, hortarako fisikoki kontesturen bat eraikitzea beharrezkoa izan daitekeelarik, ala ez.

*"Informazioa boterearen esku egon den tresna izan da sare digitalaren komunitate logikak egoera hori irauli duen artean".*

Carmelo Rodríguez Cedillo

Trazabilitateak, ideien promiskuitatea dela medio, jarduera arkitektonikoa lan metagarria edota erreplikagarria izan dadin bide ematen du. Egintza arkitektonikoaren egiturak edo kudeaketak, egokiak diren moldaketekin, beste testuinguru batera batzeko eta jatorrizko egintza garatzeko gaitasuna du. Sare digitalek –partekatzearen logikan, beraz, komunitate logikan oinarrituak– jakintza, gaur, plano ezberdinetara eramatea eta txertatzea ahalbideratzen dute. Esate baterako, Campo de Cebadako esperimenduak testuinguru digitaletik edaten du, ikasitakoa aldi berean plano errearen espazio eta denboran erabiltzen den bitartean, hala, sare digitala plazan erabiltzen den logika urbanistikoaren oinarria bihurtzen delarik.

Trazabilitatearen ideiak ondarearen babesak sortzen dituen atakei erantzuna ematen die. Hurbilketa honek agerian uzten du iragana duen edozein egitate osatzen duten aztarna metagarri eta gainjarriak sinplifikatzeak dakarren akatsa. Iraganeko egitura guzti horiek, berreskuragarriak eta balioztagarriak dira, eta esku hartze aktibo eta jarraituko kate baten parte dira. Hortaz, babestearen ekintza eraldatzaileak ez du ondarea hiltzera eta bere eboluzioa zapuztera kondemnatu behar, eguneratzea eskatzen duen organismo bizi bezala ulertu baizik.

*"Nik pertonekin egiten dut lan, hiria pertsona bat beste batekin komunikatzen denean hasten dela uste dut. Ez dut sekula espazio publikoa diseinatzen, baizik eta elkarlan sentipena bultzatzen dut, jendea komunika dadin posible egiten dut. Obra berririk eraikiko ez nuela promesa deontologikoa egin nuen".*

Itziar González Virós

Itziarren arkitekto lanetik ondorioztatzen den praxia eta erantzunkizuna, nire aburuz, profesional bezala bere egiturazko kondizioan komunitate logikak barne hartzen dituen "arkitekto izateko" modu posible baten aurrerapena da, esaten duena egiten duen norbait. Itziarrek ez du egiten duen ezer bereganatzen, bere proposamenaren iraunkortasunaz axolagabe, eraikitzen duen hura bere lege propioen arabera iragan dadin uzten du. Ez da ez objektuala ez materiala, eta sortzen duena ez da nartzisista, bere espazioak laidoztatuak izateko eta mutaziorako joera dute. Bere bokazioa aldi baterako aritzea da errealtatea bere ideien jabe egin dadin, moldatu eta hobetu ditzan horrela identitate berriak sortzeko. Duen aldaketarako gaitasunaren berrespenak islatuko luke bere lanaren benetako "arrakasta".


Bere funtzioa, diren eragile eta egiturak elkarlotzea eta konektatzea da, ingurune fisiko batean pertsonen sareak ehartzea. Diskurtsoa egitearen egintzatik gertatzen da, bere asmoen adierazpenen eta manifestuaren narrazio onena bihurtzen den praktika. Ez du bere presentzia testuinguru batean luzerako ulertzen, aldi baterako ekintza bezala baizik, lotura esturik sortu gabe, nahitaezkoa dena berak hasitakoaz beste batzuk arduratu daitezten. Lan ikusezina eta laburra da denboran muin materialik ez duen heinean, isila baina eraldatzatzeko gaitasuna duena.

## ABANGOARDIEN BEHARRA

“Deriba merkantilistak” arkitekturaren gainean, hiriaren eta lurraldearen gainean izandako eragina onartzeak, egiteko modu ezberdinei helduko dieten jarrera kritiko eta alternatibo posiblei buruz ikertzeko premia larria sortzen du. Espazio komunaren aldarrikapena eta gaur etorkizun bakar bezala ageri den kapital sistemaren aurkako borroka ez da, alabaina, soilik bizi dugun garai honi muga dakioketun sintomatologia. Gaur gertatzen ari diren mobilizazioen modukoak iragan hurbilean ere eman izan dira, hortik beraz, zibilizazioak, ezaugarri berdintsuak zituzten botere egiturei aurre egin izan dieten beste garai batzuk behatzeko egokitasuna. Gaur egungo gertaeren eta XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetako arteko paralelismoak, azken hau berrikusi eta esploratu beharreko garaitzat bihurtzen dute orduko abangoardien funtzioa ulertu eta beren asmatze eta hutsegiteetatik ikasi ahal izateko.

*“Egiten ari naizen ikerketaren lan taxonomikoak argi uzten du 50eko hamarkada bukaeratik 70ekora arte ideologiaren objektualizazio bat eman zela arkitekturari. Hirien etorkizunaren proiektzioa emakorra izan zen objektuen diseinuan aplikatuko ziren logikak sortzeko. Hiria esperimentazio eta berrikuntza arkitektonikoen eta sozialen ikuspegitik birpentsatzean jaino ziren estetiken transferentzia bat gertatu zen objektuen eta altzarien produkzioaren esparrura”.*

Carmelo Rodríguez Cedillo



“Bibliografía erlazionala” teknikaren adibidea, non Carmelo Rodríguez Cedilloren doktore tesiaren ondorioetako bat grafikoki azaltzen den.

Hiriaren proposamen futuristei buruzko eta hauen 50eko hamarkadatik 70ekora bitarteko bilakaerari buruzko Carmeloren azalpenak agerian utzi zuen etorkizun jakin bat bultzatzen zuten proposamenak –bere garaian parametro berrien arabera pentsatuak– aurrerago merkatu sistemak irentsi zituela, aldarrikatzen zituzten ideiak merkantzia bihurtuz. Carmelok aurrera daraman ikerketa lanak hiriaren esparruan sorturiko idearioaren hutsaltze prozesu bat antzematen du, eskala arkitektonikoan txertatzeko garaian jatorrizko zentzua galtzen duena eta karikatura edo muina erauzi zaion zerbait bihurtzen dena. Teorizazioak, berez, sorburuan indar eraldatzailea izan bazuen, jatorri hartan zituen asmoak ez gauzatzean, iraultzea aldarrikatzen zuen haretxen ameskeria bihurtzen amaitzen du.

*“Berrikuntza, leku batean, estetika, jarrera eta profil guztiz ezberdinak dituen jendea batu eta askotariko pertsona, jarduera, eta logikak gainezartzen diren bizikidetzak esparru bat finkatzen dutenean eman daiteke”.*

Manu Pascual García

20

Abangoardiak, balio nagusien alternatiba gisa kontrabotere egitura gisa altxatzera irits daitezkeen proposamen bezala ulertu izan dira; baina, ba al dira benetako kontrabotere egituren sortzaile azkenean sistema hegemonikoaren aurrean amore ematen badute? 50eko eta 70eko hamarkadetako abangoardien porrotak galdera bat dakar ezinbestean: benetan beharrezkoak al dira abangoardiak?

“Abangoardismoa, oroz gain, kontsentsu sozial jakin bat dela medio indarrean dauden egiteko moduekiko arbuio eta jarrera kritikoa izatea da, hedapen zabal eta egonkorra lortu duten lengoaiak iraultzeko jarrera”<sup>10</sup>. Abangoardiek aurrera egin eta berritzeko bokazioa dute, kontra-arrazoibide funtzioa betetzearekin batera. Abangoardia instituzionalizatzen den unean izaera hura galtzen du bere funtzio subertsiboa desagertzen delako. Bestalde, modu bukatu eta bakarrean proposatzen den inolako abangoardiak ez dezake lor disidente kategoriarik, eta diskurtso hegemonikoak abangoardia bereganatzea kategoria hori galdu duenaren seinale da. Beste diziplina batzuetan autokritika ohiko ariketa bada ere, arkitekturak ez du eztabaida sortu edo auzitan jarriko duen testuingururik ala ahotsik. Hortaz, arkitekturaren abangoardia kritikoa, besterik ezean,

10 SOLÀ-MORALES, Ignasi: *Eclecticismo y vanguardia y otros escritos*. (Gustavo Gili: Barcelona, 2014).

ezein jarrera intelektualek nahitaezkoa duen bilakaerarako eta eztabaida sortzeko helburua beteko luke.

## KOMUNA DENA: NI, GU, HAIEK


Parte hartzea hiritarraren ahalduzko prozesu gisa aldarrikatzea diskurtso hegemonikoak bere egin duen azken abangoardia da. Alderdi politiko guztiak igotzen dira “parte hartzearen trenera”. “Jasangarritasunarekin” gertatu denaren antzerakoa izan da, hots, biak ala biak benetako eskaera eta aldarrikapen beharretatik sortu arren (batean hiritarraren eskuhartzea politikan eta kontzientzia ekologikoa bestean), sistema politikoak bere erretorikarako beretu egin zituela, baina edukiz mehetuak eta ikur huts bihurtuak. Ez da bi berba horien jabe egin eta modu errazean partiduak “parte-hartzaile eta jasangarri” bihurtzen ez dituen hauteskunde kanpainarik. Baina parte hartzeko eskubidea guztiona da, ezin du inongo diskurtso politikok bereganatu. Parte hartze prozesuen erabilera okerre ez lukete komunitate logiken balioa ezbaian jarri behar, ezta inposatutako diskurtso hegemonikoekin hausteko duten boterea ere.

21

Hiritarraren rol parte-hartzailea eskatzen duten egungo hiri-ekintza kolektiboek eta mugimendu sozialek ez dute lortu estetika jakin bati, edo nahi bada, beren identitate ikur bihurtu den sinbolo bati lotzetik ihes egitea (pentsamendu arkitektonikoaren bizikide den estetizazio prozesua). Nahiz eta Manuk Campo de Cebadako ekintza urbanoen parekotasun estilistiko falta aipatu, nekeza egiten da alternatibo izena hartu duten egiteko modu horien ikur “transgresore” gisa gailendu den “palet estetika” horren usainik ez hartzea (parte-hartzaile, birziklatu, demokratiko... etiketapean). Ez da kolektiboki egindako bere egurrezko hiri altzaririk ez duen ekintza urbanorik, izan paletekin ala egur birziklatuarekin.

*“Badira gaur egun berdina egiten jarraitzeko alibi bihurtu diren parte-hartze prozesu egituratuak”.*

Itziar González Virós



Campo de Cebada espazioaren deskribapena jardueren erabilera gidoiaren bidez, gertakizunen leku bat aldarrikatuz.

Parte hartzeak ez du esan nahi zure erantzunak zertarako balioko duen ongi jakin gabe galdetua izatea (parte hartzearen irismen politikoa), edo galdera nondik sortzen den edota harekin eta emandako erantzunekin zer gertatu den ez jakitea (parte-hartze prozesuaren itzultzea). Herritarrei galdetzea parte-hartze momentu bat bezala ikus liteke, baina ez da komunitatearen eraldatzeko gaitasuna kontuan hartuz hiria egiteko benetako apustua bermatzen duen prozesu parte-hartzailea. Halaber, parte hartzeak ez du eskatzen hartu behar diren erabaki guztietan present izatea. Parte hartzea herritarraren dimentsio politikoa berraurkitzea da, eta oroz gain, publikoa denaren kudeaketan herritarraren eta politikoaren aldetik jarrera aldaketa bat dakar berekin.

*“Lokatzetako lizunaren zelula ergelen batzeak zenbait gizakik inoiz konponduko ez lituzketen arazoak konpontzen dituzte. ‘Izaki plurizelular adimentsuaren’ gaitasuna da, konbinazio a-hierarkikotik sortzen den adimen kolektiboa”.*

Manu Pascual García

Batzen gaituenetik eta komuna zaigunetik aritzeak ez dakar “ni” eta “gu”-ren arteko konfrontazioa, ezta “gu” eta “haiek”-en artekoa ere. Hau da, jarduera komunitarioak ez du ikustekorik ez nagusi den bat horrekiko singularitatearen otzantasunarekin, ez diferentzia ezabatuarazten duen homogeneizazioarekin ere. Komuna denaren izenordaina eratzen duen “gu”-a, “ni dilatatu” baten, “lehen pertsona anplifikatu” baten eta “subjektu burujabe” baten moduan uler daiteke<sup>11</sup>. Komuna dena askotarikoa da eta ez da zuzena norbanakoak homogeneizatzen saiatzea berdina izan daitezen bilatuz. Kolektibitatea norbanako ezberdinek eta askotarikoez osatzen dute, non ahots guztiek, bazterketarik gabe, parte egiten duten. Guztiak berdintasunean present izan behar dute, bestela, sistemak berak sortuko ditu desberdintasunak isilarazten diren ikuskeren ondorioz. Are gehiago, “gu”-aren identitateak berak “haiek”-en existentziaren beharra

<sup>11</sup> Gu-a ez da pluralezko subjektua, ezpada gure jarduera komunaren -partekatua ezinbestean- koodenada gisa ulertzen den munduaren sena (...). Nire eskua iristen ez den tokira, besteara iristen da. Nire garunak ez dakiena, bestearenak daki. Nire bizkarrean ikusten ez dudana, norbaitek beste ertz batetik hautematen du. Ni-aren finitutasuna ez bereizketaren baldintza gisa, jarraitutasunarena baizik. GARCÉS, Marina: *Un mundo común*. (Edicions Bellaterra: Barcelona, 2013). 28-29.

du, eta diferentziaz definitzen da<sup>12</sup>. “Gu”-a aurkakoaren (haiek) presentziaz eratzen da, beraz, komunitatea ez da osoa izango ezberdina onartzen ez bada (haiek ala “bestea”)

*“Hiria modu kolektiboan eraikitzeak gatazka kudeatzera behartzen du, ez hau konpondu beharraren ikuspuntutik aztertuz, gatazka bizilekutzat hartuz baizik”.*

Manu Pascual García

Egungo espazio publikoak arazo gatazkatsuak hauen erroei heldu gabe konpontzen ditu (arazoa gerta dadin eragotziz, autoritariotzat jo daitekeena). Gure kaleetatik eskaleak kanporatzea ikusezin bihurtzearen bidez egiten da pobrezia arazoari aurre egin beharrean. Ez da posible izango espazio komunika eraikitzea “haiek” edo “bestea” kontuan hartu gabe (eskaleak, adibidez). Kolektibitatea aurrez aurre dauden posizioekin eratzen da eta hortik abiatuta ekin behar zaio, “gu” eta “haien” artean adostasunetara iritsiz. Negoziazioa gailenduko balitz ekidiezina litzateke aurkariaren legimitatea aitortzea eta ez legoke gatazka saihesterik. Gatazka, egoera ezezagokorra onartzea da, hortik, adostasunak, kolektiboki eraiki ahal izateko beharrezko egiten diren kontsentsu iragankorak izatea, edozein unetan atzera gatazka izatera igarotzeko zaurgarriak. Negoziazio egoera, hortaz, etengabeko aldaketan definitzen da. Horixe da eraikitze kolektibo baten “gauzen egoera”; kontrakoa, diskurtsoak, aurkariak eta errealitateak baztertzea litzateke. Hiria komunitate logiken arabera eraikitzeak, aliantzekin, adiskidetzekin eta gatazkekin lan egitera behartzen gaitu, etengabea eta birformulagarria den zeregina, gerta daitekeenaren aldaketei eta ezustekoei irekia.

*“Araua ez dago instituzionalizatzerik, nahiz eta kolektiboki adierazitako araua izan”.*

Itziar González Virós

12 Chantal Mouffek eta Ernesto Laclauk gizarte demokratikoa konfrontazio espaziotzat hartu behar dela diote, non bakoitzak bestearen existentzia aurkaria balitz ulertuta aitortzen duen; demokrazia erradikal bezala definitu izan duten egoera. Kontrakoen eta etsaien artekoa bezala definitutako antagonismoak agonismora higitu behar du, etsaia aurkari bihurtuz. Aniztasunaren eta pluraltasunaren defentsa da, Hannah Arendtekin edo Xavier Antich berak aldarrikatua *The City of Dissent: Shared Space and Plurality* liburuan.

## HIRIGINTZA DES-ERATZAILEA

Ekintzazko hirigintzaren eraldatzeko borondatea, Campo de Cebada plazaren kasuan bezala, esperientzia urbanoan oinarritzen da eta kapitalaren logikari lotutako hiria egiteko modu hegemonikoarekiko erresistentzia ekintza gisa har daiteke<sup>13</sup>. Hirigintza modu horrek eraikitzearen bizi-esperientzian jartzen du arreta, parte hartzean eta gizarte testuinguruan, bai ingurune fisikoan nahiz sozialean eragin asmoz. Auzoko eskalan ematen da eta praktikaren eta esperientziazioaren alde egiten du, Michel Foucaulten “pragmatismo esperimentalaren” interpretazio moduan. Hiria eraikitze modu honen ahuldadeak prekaritatea eta boluntarismoa dira, izateko baldintza gisa zaurgarritasun dosi handiak ezartzen dituzten ezaugarriak, eta, beraz, baita erraz desagertzeko joera ere. Horrek ez du hutsaltzen hiria egiteko modu ezberdinak “prototipatzeko” ahalegin horien balioa, bide alternatibo posibleen balioztatzaile eta akatsen neurgailu lana egiten baitute, baina batez ere egiteko moduetan egiturazko eraldaketa baten beharra agerian jartzen dute. Ezer ez da alferrik gertatzen, eta esperientzia horiek etorkizunean jarrera berriak eragin litzazkete menturaz, hala beren funtzioa beteko zuketelarik errealitate aktibo bezala desagertuagatik ere. Beren existentzia ez da halabeharra, eta ingurune komuneko espazio kalitatean eta kudeaketan gabezia bat adierazten (eta galdegiten) dute, hala nola bere eraikuntzan gailentzen diren logiketan ere. Egoera horren ebidentzia gisa besterik ez bada ere, ekintzazko hirigintza hau egokitzen har dezakegu<sup>14</sup>.

Hirigintza esperientzial horrek izan dezakeen bizitza laburrak beste jarrera kritiko batzuei buruz hausnartzera garamatza; salaketako praktika

13 Slavoj Žižekek definituriko Kapitalismo globalarekiko erresistentzia jarrera posibleen artean, ekintzazko hirigintza autonomista gisa sailkatuko litzateke, hegemonia egitate moduan onartzen duena, baina arrakala edo pitzaduretatik disidentzian kokatzen dena bezala definitua. ŽIŽEK, Slavoj: “Resistance is Surrender”, *London Review of Books*-en argitaratua.

14 Bere azken liburuan, Montanerrek (j. 1954) arkitekturan eta hirigintzan hari gidari bezala esperientzia urbanoa eta ekintza darabilatzat proposamen garaikideen berrikuspen bat egiten du, arkitektura-proiektuaren intenzionalitate berri hau nabarmenduz. MONTANER, Josep Maria: *Del diagrama a las experiencias, hacia una arquitectura de la acción*. (Gustavo Gili: Barcelona, 2014).



Egitura berriak azaleratzen dira aurrez zeudenetatik eraispenaren estrategia erabiliz.  
Gordon Matta-Clark. Conical Intersect. 1975  
© Estate of Gordon Matta-Clark, VEGAP, Donostia –San Sebastián, 2015.

performatiboak esaterako, disidentzia klabeetan eraikitako espazioak izan ezik –espazio eta denbora jakin batean gertakizun gisa– materiala den ezer uzten ez dutenak. Ikusleek, errelato dominantetik at dagoen egoera bat esperimintatzen eta bizitzen dute performancearen bitartez. Honek, zuzeneko esperiantziatik abiatuta, subertsiorako ahalmena izan dezaketen portaerak eta jarrerak azalazteko helburua du. Nabarmentzekoa, egitura mailan aldaketa bat eman dadin beharrezko baldintzak sorrarazteko fisikoki ezer eraiki beharrik ez izatea. Inork ez du zalantzan jartzen, hiri-altzariak, baratzeak edota grafitiak kolektiboki egiteak ez duela nahitaez suposatzen komuna denaren kudeaketaren kontzientzia hartzeari dagokionean baleko ariketak direnik. Alabaina, mota honetako ekintzei beha, espazioaren jabe eginez presentzia irabazteko nolabaiteko asmo bat antzematea posible da, espazio kolektiboan aztarna materialik uzteko beharrik gabe, amankomunean pentsatzeko esperientzia bera nahikoa izan zitekeenean. Arkitektoaren funtzioa bizitza garatu dadin baldintzak posible egitea da, eta gertakizun urbanoa fisiko egiteko presak, ageriko aztarnarik utz ez lezakeen hirigintzaren helburua bera gaiztotu dezake.

*“Aulkiaren jokotik hondarrezko zirkulu batean jolastera pasa behar dugu, non jokua arauak uneoro jokalaririk guztien artean adosten diren eta inor ez den jokalekuaren jabe egiten”.*

Itziar González Virós

Boterearen egiturak berformulatzeko Itziarren planteamendua praktika performatiboetatik eta esperientzialetatik urrats bat haratago doa. Kontua ez da dauden egiturak eraitsi edo haien aurkako erresistentzia egitea; bakarrik eroriko dira. “Ez dugu administrazioak gure beharrak ase ditzan zain egon beharrik”, lan kolektiboa nahikoa da tresna paraleloa eta politikoa sortzeko. Proposatzen den herritarren parlamentua, boterearen egituraren egitekoa etengabe zaintzen duen elkarlanean tresna politikoa da, boterearen gehiegikeriak ekiditeko tresna. Demokraziaren kalitatea kontrolatzeko eta agintean den botere egituraren “afinazio” funtzioa betetzeko herritarren esku jartzen den gailu politikoa da, eta “egitura hegemonikoa herritarren multzoak erabakitakoarekin lerratzen ez denean hitz egingo duen ganbera iraunkor” bezala definitzen da. Planteamendua indar kontzeptual eta berritzaile handia du, ez baitu eztabaida hegemoniari nola aurre egitean edo irabaztean zentratzen, ezpada interes amankomunen

defentsan, kolektiboak eragindako tresna erregulatzailerik, balioztatzaile eta kontrolatzaile bezala aritu daitezkeen tresna baliagarri bat sortzean. Proposamen honen eragina egiturazkoa da, hegemoniaren funtzionamendua aldatzen baitu –kapitalaren interesa herritarraren interesen alde lan egitera behartzen du–, horrek des-eratu edo egintza estetiko huts bihurtu ez izateko indar handiagoa ematen diolarik. Helburua ez da inor garaitu edo ordeztu, ezta boterea hartzea ere, gizarte bezala modu bateratuan aurrera egiteko tresna bat izatea baizik. Gogoeta asko dago egiteko oraindik “Hirigintza des-eratzailerik” praktikei buruz. Hiria egitearen pentsamendua konstanteki eratzten ari den osatzen eta eratzten duten ideien lan des-eratzailerik bezala definitua, eta esperientziazko jardueraren ezinbestean, hiriararen etorkizunaren erronka eraldatzaileekin batera joango da ziurrenik.

*“Gizakiaren historiaren aro postkapitalistan bizitzeko zoria dugu. Egitura eta kontzientzia aldatzea, burutzen denbora asko beharko duen prozesua izango da; guk ez dugu ezagutuko”.*

Itziar González Virós



TABAKALERA



# CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS II: LA LÓGICA COMUNITARIA

ARGITARATZAILEA  
Tabakalera  
(Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa)

TESTUA  
Ula Iruretagoiena Busturia

ITZULPENAK ETA ORRAZKETA  
Imanol Mujika

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA  
Nere Lujanbio, Naiara Uranga

DISEINUA  
Gorka Eizagirre


IMPRIMAKETA  
Artes Graficas Lorea S. L.

L. G.  
SS-1165-2015

ISBN  
978-84-608-2666-8

Ula Iruretagoiena Busturia

9 788460 826668



**TABAKALERA**



**CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS II:  
LA LÓGICA COMUNITARIA**

**ANE RODRIGUEZ ARMENDARIZ**  
Directora cultural de Tabakalera

Abrir un centro de cultura contemporánea de grandes dimensiones supone tener que enfrentarse a retos y contradicciones, a cuestionar su rol a la hora de hacer ciudad y política, desde la responsabilidad.

La remodelación de un edificio industrial para su cambio de actividad conlleva inevitablemente enfrentarse a cuestiones de patrimonio y monumentalización en el proceso, a cuestionarse el valor de los espacios y la inversión pública en los mismos. La mejora del espacio contiguo, la generación de plazas y amplios espacios públicos aportan una mejora urbanística que afecta directamente a la vida de los vecinos y vecinas. Sin embargo, todos estos procesos siempre van acompañados por la incertidumbre, el cambio que afectará al devenir de un barrio, de una zona, el cambio de lógicas en una ciudad donde la centralización o popularización también suponen un impacto económico.

Desde el ámbito cultural, sin embargo, nos toca asumir un rol político y crítico para impulsar el desarrollo social, ser un laboratorio de iniciativas y un espacio de pensamiento sobre nuestra contemporaneidad. Ciudad y otras políticas nos sirve para pensarnos y asumir un rol de espacio reflexivo y autocrítico, un espacio desde donde hacer ciudad, y construir en común, mediante la acción, una ciudad dentro de la ciudad.

# CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS II: LA LÓGICA COMUNITARIA

Ula Iruretagoiena Busturia

- 9 | LA LÓGICA COMUNITARIA FRENTE A LA LÓGICA DEL CONTROL
- 15 | LA RESPONSABILIDAD Y EL COMPROMISO POLÍTICO DEL ARQUITECTO
- 19 | LA NECESIDAD DE LAS VANGUARDIAS
- 22 | LO COMÚN: YO, NOSOTROS, ELLOS
- 26 | URBANISMO DE-CONSTITUYENTE

Los días 16, 17 y 18 de octubre de 2014 se celebró el ciclo de las jornadas sobre "Ciudad y Otras Políticas"<sup>1</sup> continuando la reflexión discursiva iniciada en 2013. Estas nuevas disertaciones sobre la ciudad también en su dimensión y competencia política, se centraban en la búsqueda de prácticas o formas de hacer ciudad desde y por la comunidad, asumiendo el potencial de compartir y colaborar de la ciudadanía y con ello sugerir la posibilidad de apertura de vías alternativas de actuación frente a los modelos de desarrollo predominantes actuales. No en vano, la vocación de estos "otros" modos de intervención es el reconocimiento de la ciudad como lugar común que nos concierne como habitantes y desde donde estamos abocados a operar socialmente, lo que viene a poner en valor y enfatizar el carácter comunal de todo acontecimiento urbano actual o posible. Repensar "lo común" constituyó además el paraguas conceptual de una línea de pensamiento crítica entorno al cual se organizaron varias actividades del programa cultural de Tabakalera durante el año 2014. En este contexto, la discusión sobre la ciudad sirvió para hilvanar teorías y planteamientos vertidos en otros foros y desde otras perspectivas filosóficas, artísticas y antropológicas, considerando la ciudad como lugar donde confluyen todas ellas.

1 Las jornadas fueron organizadas por Ibon Salaberria San Vicente y Ula Iruretagoiena Busturia.

